

Cathala, etcheto

ELENA BELOKI



ASTELEHENA

beti astelehena bada ere, iragan denak ez ohizko bilakatu zaio Jôel Cathala polizia frantziarrari. Madrilgo komunikabide batek helarazitako informazio baten arabera, GAL aferak gaurko Pariseko Diccilec —lehen Aire eta Mugetako Polizia PAF— gorputz polizia-laren zuzendariordea zipiritzintzen du. Beti informazio honi jarraituz, GAL garaian Hendaian bizi zen PAFeko polizi buru honek Espainiako Barne Ministeritzak fondo erretsebatuetatik emaniko diru partida ederrak jaso zituen GALek hil zituen hainbat euskal errefuxiatuaren xehetasunak emateagatik eta ETArekin kontrako borrokan parte hartzeagatik.

Cathala polizi burua, oso kexu azaldu da beraren kontra botatuko irainak, difamazio hutsa omen direlako eta hori dela eta, bide judicialari ekinen diola segurtatu du. Hala ere, Hendaia polizi ohiak, ez zuten 'bere hierarkiaren baitan' izan arte 'egunkari madildarrak egin akusazioez komentariorik egin nahi izan.

Zer baitenez ari da Cathala? Zenbat frogahiago? Non daude Revillaren erreskatatuen 25 milioi, desagertuak Hendaia poliziburu zenez? Norik ematen zizkion polizia espainiarrari euskal errefuxiatuei buruzko datu eta argazkiak, eta harek egindako atentatuen ondoren azpiegitura edo mugas pasatzeko babesak? Ez al da Cathala beste Amedo bat izanen? Zenbat Cathala, Etcheto, Ghali, Manzanal, Metgne daude oraindik?

Mila galdera eta kezka buruan, baita memoria dantzan. Oso ezagunak dira maleruski orduko Argelian, Kanakyn, gaurko Kortikan, Martinikan Franses Estatuak diseinatutako gerla zikinak, eta guri dogokigunez, are ezaguna zaigu Frantziako eta Espainiako estatuen arteko sakoneko apostu politikoa. Hauxe dugu Amedo eta Cathalaren jarrearen iturburua, hauxe bi estatuen inpunitatearen giltzetariko bat.

Damua garaiz

TXILLARDEGI



'ENBATA' asteakari gogorazi digunez (ikus Joan den aste 1391. alea), oso deklarazio bitxiak egin zituen Mitterrandek Montrealean Frantziako Presidentzia utzi baino egun pare bat lehenago.

XXI mendean barrena —Mitterrandek esan omen zuenez— bi joera nagusi agertuko dira gailen. Batak herrien arteko elkartasuna bultzatuko du; eta honek, Europa mailan, nola-halako europar federakuntza azkartuko du. Baina, horrekin batera, 'gutxiengoek beren burua sendotu nahi dute'; separatismoak indartuz, edo-ta, gutxienez, subiranotasuna bermatzeko bideak ipiniz.

Edonori bururatzen zaion galdera, jakina, hauxe da: zer egin du Mitterrandek Frantziaren gidaritzara bere eskuetan atxeki duen 14 urte horietan?

Agintea uzterakoan gogoratu da gutaz; eta, Quebecen... Gutxitxo!

Baina gertakari horrek pentsarazi egin behar liguke. Zeren-eta, zer gertatzen da gurean?

Aginte autonomikoan dauden alderdi 'abertzaleek', postu giltzarrietan jarri dituzte behin eta berriz Euskal Herriaren etsai amorrotu eta lotsagalduek; eta bat egin dute abertzaletasunaren etsairik nabarmenenekin.

Aginte autonomikoetatik al gelditu direnak, berriz, ideologi zabalutasuna bermatu beharrean, hertsikerien joko antzientz erori dira behin eta berriz; autonomizien jokoan nabarmenki eroriz.

Mitterrandek bere 14 urteak 'galdu' ditu. Eta guk, abertzaleok, zer?

HEMEROTEKA

●egin

Azkeneko untzia

1984. urtean, orain dela hamar urte, Euskal Herriko untzioetan, industria auxiliarretan ari zirenak kontuan hartu gabe, 8.166 pertsonak egiten zuten lan. Egun apenas ari diren 3.114 baino gehiago. Hauetatik 2.458 AESAko plantilari dagozkio, Sestaon. Beste guztiak —656— enpresa txikitari ari dira. Erakuntza Navalaren Dibisioaren (DCN) plana aplikatzen bada, Sestaoko untziolak 1.369 lanpostu galduko ditu, eta euskal itsas sektorean, herri honen industrializazioaren giltzari izan denean, 1.746 langile bakarrik geratuko dira, gehienak, gainera, urtez ongisko hornituri daude. Langile berririk apenas sartzen denez gero, denboraren poderioz, halabarrez, itxi egingo da.

Ezkerraldea, Labe Handiak itxita, etorkizunik gabeko zona bihurtuko da, jendea paraoan noranahi. Europar kongbergentziak halaxe eskatzen duelako fabrikak itxi beharrezko dela esango dute, altzairu eta naval sektoreak zaharkiturik zeudela. Indarrean dagoen sistema ekonomikoan, kapitalistan, konpetitibitatea kontuan hartzekoa da. Hori egin



—De alumnos educados según los planes de enseñanza como los que venimos soportando, seguirán saliendo ministros de Educación igual que el que tenemos.

Pairatzen ari garen irakuskuntza planen arabera hezitako ikasleetatik, daukaguna bezalako Hezkuntza ministroak aterako dira berriz ere.

MARTINMORALES / ABC

bada ere, egia ere da alternatiba berriak, inbertsio konpetitiboak eta imajinazioak aurkitzeko ez dela behar beste egin. Madrildik heldu diren planen aurrean pasibitate etsiarren aldeko jarrera hartu duela erakusten du Lukako Gobernuaren isiltasunak. Estatuak eskaintzen dituen konpetentziek ez diote eusko Jaurilaritziari hemengo industria erabakitzeko ahalbiderik ematen. Hori horrela izanik ere, gutxienez alternatiba eta apioa bazuk espero dituzte langileek, lanpostuei eusteko eta aberastuzun gehiago sortzeko erakun-

deek borroka egitea alegia. Badiñori hori guztiak askoz hobeto konprenitu duela Andaluziako Juntak. Arrazoi elektoralak tartean izango dira seguraski, baina Chaves lehendakariak espediente erretiratze eskatu du eta beste oinarri batzuetan funtsatu behar dela negoziatzeke, esan du. Paradoxa hutsa da, Chavesen partiduko bereko Gobernu zentrala baita itxia diseinatu duena.

Langile andaluziarren erantzuna biribila izan da. Guztiz konprenigarria bestalde. Izan ere lanerako eskubidea defendatze-

ko hartzen utzi zaien azken untzia borroka eta ezinbesteko eskua izan da.

EDITORIALA

●DEIA

Hau ez da matematika

Atutza sailburuarena da adierazpena —[ordena publikoa nola zaindu] «ez da matematika kontua»—, baina baita bake taldeetako zenbaitena ere. Bada orainte debate handi bat eta gizarte presio handi bat, suminduraren ondorioz, Ertzaintza «busti da» din eta ekin diezaien. Erne sindikatua bereziki erasolari dago eta espliazio posible bakartzat jotzen du —oker, Egibarri kasu egiten bazain behintzat— negoziatzearen bat egiten ariko dela, bestela «ulertezina» delako ezer ez egitea. Atutxari, beste aldekoek hainbatetan kritikatu izanik gehiegizko berotasunagatik, pasibitatea egozten diote orain. Oraingoz esan behar zenua jada esan zuten sailburuak ostegunaren: «Ezin zaie ekin irainka ari direla-eta; hala erakusten du egindako atxilotuen emaitza eskasak». Eta, gainera, «hau ez da matematika kontua».

JOSE FELIX AZURMENDI

ZUZENDARIARI

Kilometroak 95

Laister, urriaren lehenengo egunean, bere egunik haundienetarikoa bat biziko du Donostiak: 'Kilometroak' 95en ospakizuna.

Honelako jai zabalaren aurrean zenbait burutapen egin nahi nuke, ikastolak betidanik izan ditugula uste baitu batek baino gehiagok. Eta hori ez da zuzena.

Gure ondorengo ikastolak borroka luze, neketsu eta izkutan oinarritzen dira. Baina herriak aurrera ateratu zuten denok baten gintuen helburua gurelako: Euskera.

Hasierako urratsak oso gogorak izan ziren. Apalak, oso apalak izan ziren gure lehenengo ikastolak, etxebizitzetako gela klandestinoetan, 50eko hamarkadakoak. Poliki-poliki hasi ziren argitzen, zabalzen, hedatzen, garatzen. Herri honetako gurasoen grina geldiezia zen eta beraiet zizuten altxorrik preziatuenak sortu berriak ziren Euskal Eskola hain eskuetan uzten zizuten: haurrak.

Mugimendu hura, herriaren sustraietatik sortutako mugimendu berri hura, pausoka, aurrera zihoin. Eta agintarietako amore eman behar izan zuten... Eta 70eko hamarkadan, banan-banan bazen ere, hasi ziren legezartzen. Zenbat jaialdi, zozketa, txosna, olentzerio ez ote ziren egin bide luze hartan txanpon batzuk aterata eta ikastolak ezagutarazteko bidez ere. Urteak pasa hala, 1977an eta Beasainen 'Kilometroak' hasi ziren. Euskaltzale asko bildu ginen 'Kilometroak' hartan, gehiago hurrengoan, eta hurrengoan... denok helburu berberak bultzaturik.

Baina denok itxaroten genuen Euskal Eskola Publikoaren legea iritzi zen eta zaitu egin gintuen.

Bakoitzak gure arrazoiak ditugu, noski, lege honen aurrean alde ala aurka egoteko, denak errespetagarriak, baina zatiketa sortzen duen lege bat ezin da ona izan. Erdipurdikoa gehienez. Norik asmatu ote du gatazka honetan? Geroak esan beza.

Euskal Herriak eta euskerak dena kontra

zeukaten ena laiz haieten garaila ateratzen, zergatik ez gara berriz batuko helburua aldatu ez bada?

KONTXITA BEITIA OIARBIDE Donostia

Euskaldunon Aitagure berria

Gure aita Xabier / txoko guztietan zaudena / santu izan bedi / zure jarrera bikaina / etor bedi zure borondate ona / egin bedi zure nahia / elizan bezala / Euskal Herrian ere. / Emaiguzu sorpresatxo bat / apartatu zure hitz hutsalak / gero betetzen ez dituzenez gero / eta ez gu tentaldira eramane / ea ateratzen gaituzun espagnolismo / hontatik. / Amen.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ Andoain

GAIA JARRITA



Besaide Eguna

Gaur Basaideko ingurunean egun berezia denez ustekabean joan zaizkigun mendizaleen omenez azkenaldian menditik dator nahigabe asko tamalez mendira irten gaitezen nahiz-ta arriskua duen berez errespetoa merezi baitu baina beldurrik inoiz ez

IÑAKI ZELAIA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailu: SS 800/90 ISSN 1134-640X



OKI IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontsultako Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontsultu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontsultari Ordezkaria: IÑAKI URIA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egofitza nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

300 222 / Erredakzio faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20-1. eker. / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73 / Publizitatea: 13 19 65

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Irtitziz dorrea) / 31011 Iruñea / 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77 / Publizitatea: 17 66 86

Bizkaia: Zabaltzu Enparantza, 2-1. eker. / 48003 Bilbo / 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / Publizitate Orokorra: 410 38 55 / Publizitate Lokala: 410 38 46

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Puteuccu, 14. / 503 Posta Kutxatila, / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11